

Txillardegia

Idazlea

# Ondorioak ateratzeko garaia: prentsa elebidunak hogeitun urte

■ Eta egunkaria honetxek burutazio egokia izan du Ekainaren 29ko allean: halako balantze edo delako bat egitea. Zertan da Deia eta Egin elebidunen hizkuntz egoera?

Alazne Iturriotz-en luman aurkitzen ditugun iruzkinak oihartzun zabala merezi lukete: «Euskara eta erdara toki berean doazenean, euskararen kaltetan suertatzen da beti... Prentsa elebiduna —Deia eta Egin— ez ari da kazetaria — ia prentsa erdaldun bilakatu zen».

Egia borobila besterik ez baita.

Orain dela urte batzuk, hizkuntzen erabilpenaren neurketa egin ohi zuen E.H.E. erakundeak. Hots, daturik gabe ere, gauza bat agertu da gailen: Egin eta Deia erdal prentsaren atal bihurtu direla.

Bestela esanda: prentsa elebiduna famatua, mitoa da. Gehienez beste hau aurki daiteke: prentsa erdalduna, batetik; eta prentsa euskalduna, bestetik. Hobeki ala erdipurdi disimulaturik, baina biga, eta ez bat. Soziolinguistikako beste alorretan bezalatsu.

Euskal Herriko prentsa, erdararen menpeko dago, beti egon den bezalatsu. Salmentaz nagusi diren egunkariak erdaldunak dira: *El Correo Español*, *El Diario Vasco*, *Deia* hirugarrena (bilingüe omen), eta gero *Diario de Navarra*, *Sud-Ouest*, eta abar. Euskara erabat baztertuta dago Euzkadi bi-autonomikoan.

Eta hau ez da bitxikeria: españolismo errejonalistari, *bilingüismo* mota hau dagokio. Alegia: elebakartasun espainola, bai; baina mozorrotua.

EGUNKARIA da erregeia hausten duen bakarra.

Hots, zer aurkitzen dugu kanpo aldean honi buruz?

Egun hauetantxe izana naiz Bretainian. Bretainiak lau milioi biztanle ditu. Zenbat *brettonnat*, zenbat *brezhoneg-dun*? Eta erantzuna hau: % 10 inguru, 300.000 exkax ezkorren uestez. Hizkuntza, zinez desagertzeko zorian.

Hots, Bretainian ez dago bretoinerazko egunkaririk, eta astekaririk ere ez. Abertzaleek argitaratzen duten *Bretagne Breizh Info* aldizkarian ere, 3 artikulua daude bretoineraz (38. zban), 8 orrialde-

**Prentsa elebiduna famatua mitoa da. Gehienez beste hau aurki daiteke: prentsa erdalduna, batetik; eta prentsa euskalduna, bestetik**

tan. Alegia: % 15 inguru, hedaduraz. (Hemengo prentsa elebidunaren heinean, egia aitortzeko).

Irlandan ere, Irlanda Askatuan, gaelikozko egunkaririk ez dago: *Lá* izeneko aspaldi pasa baitzen *suskritore* ezezagunen ilunpeetara.

Zer ikusten dugu Kataluñan, ordea?

Datoak 1993ko *Mercator Guide* delakotik atera ditut. Liburua, bidenabar derradan, Gales-en eta

Ned Thomas adiskidearen gidaritzapean argitaratzen delarik. Eman dezagun zerrenda soila, eta xehetasun funtsezko batzuk.

Kataluñan gaur zazpi egunkari hauek argitaratzen dira:

1 - *Auiú*, 1976-ez geroztik. 60.000 ale egunean. Katalan hutsez, lan-hizkuntza *bakarra* katalanera delarik. 215 langile.

2 - *Diari de Barcelona*, 1987z geroztik. 25.000 ale egunean. 140 langile. Lan-hizkuntza *bakarra*, katalanera. 1984 arte kazeta hau gaztelaniaz ateratzen zen, katalanezko txokotxo folklorikoak eta gutti. Gaur, katalanera hutsez.

3 - *Diari de Girona*, 1991z geroztik, 10.000 ale egunean. 91 langile (91 *liberatu*, nahiago baduzue). Hau ere *elebiduna* zen, eta gaur *elebakarra*.

4 - *Diari de Lleida*, 1989z geroztik, 4.000 ale egunean. 60 langile. Hau ere *elebiduna* izan zen.

5 - *El Punt*, 1979an sortua. Gironan agertzen da, eta 16.000 ale ateratzen ditu egunean. Bertan 162 langile. Bertako lan-hizkuntza *bakarra*, katalanera.

6 - *Nou Diari*, 1990z geroztik, 7.000 ale egunean, eta 60 langile.

7 - *Regió 7*, 1991z geroztik ari. 8.000 ale egunean, eta 60 langile.

Gure artean ez dira falta *katalinoak* mespretxuz begiratzen dituztenak.

Baina nik (barka!) Kataluñan nazio bat ikusten dut abaldian eta abiaturik.

Hau ulertuko, eta zinez sinetsiko, ez duguno, Euskal Herriak jai dauka.

Eta bada garaia deplauki aitortzeko, eta dagozkigun ondorioak ateratzen hasteko. ■

Maixux Rekalde



Isiltasunaren mundua

Cousteau Komandantea joan zaigu. 87 urte beterik zituen, eta horietatik asko natura ezagutzen eta ezagutzera ematen zuzendu zituen. Nork ez du ezagutzen bere irudi zimel eta aurpegi alai hura? Eta itsaso guztiak zeharkatzeko erabilitako *Calypso* ontzia? Beti irribarretsu eta gartsu azaltzen zituen ikasitakoak. Hari esker, ikasi eta ezagutu dugu ur azpiko bizia. Zenbat eta zenbat arrain mota, zenbat eta zenbat bitxikeria itsasoan... *Itsasoetako Komandantea* ezizenez ere ezaguna egin zitzaigun.

Kamerak urpean sartu zituen eta aurrenekoz gainera. Gero irudiak filmetan sailkatu eta egokitu ondoren, munduko telebista gehienetan azaldu dira eta horiekien batera zabaldu zuen mezua benetan gogoratuko dugu. Naturari behar diogun begirunea eta honekiko maitasuna ere biztu zituela askorengan, esango nuke.

*Munduan den frantziar ospetsuena* zela esan zuen Chirac Presidenteak haren heriotzaren berri jaso zuenean. Beste laudorio asko ere azaldu dira, egun hauetan, komunikabide guztietan. New Yorkeko Lurraren galiurra ospatzen ari zen egunetan jazo zelarik, ez ziren hango partaideak atzera geratu, laudorioak zabaltzean. Baina, nazioetako botereetsuek jarraituko ote dute hark irekitako ildotik?

Ingurugiroaren hondamendia areagotzen doa eta «orain ekiten ez badiogu, lurrari kalte konponezina egingo diogu» zioen Nazio Batuetako idazkari nagusia den Kofi Annan-ek. Hain zuzen hondamendi honetan eragin handiena duten herrialdeak (*botereetsuenak*) dira konpromezu gutxiene hartu nahi dutenak. Haiek kutsadura handiena sortzen dutenak arren, neurri zehatzak hartzeko ez daude prest.

Jean Louis Davant



Pastoralaren marketinaz

Beste kazeta batean irakurri berria dut bazuen iritzia «marketina dela (...) Hego Euskal Herriko politikari nagusiei buruzko pastoral saila (...) —Agirre, Arana...». Astakeria galantik entzuten da pastoralaz, baina maila horretakorik ez nuen asmatuko. Trajeria idazleari ez zaio burutik pasatzen ere marketinaren idearik. Maite duen pertsonaia batez idazten du, eta har dezala nahi duenak! Antzerkia jokatu nahi duen taldeak, berriz, hautatzen du bere gustuko idazle bat, prestik duen trajeriarekin, salbu arras udalerriko heroi bat baduenean (Etxahun Barkoxen, Matalaz Mithikilen, De Luxe Atharratzen).

Gertatzen dena da denok abertzaleak garaile gaurko sei trajeria idazleak (baita ixilean ari diren gazteagoak). Euskal Herri osoa dugu Aberria, eta iparralde hamar aldiz edeitan baitu hegoaldeak, ez da harritzekoa toki bat har dezaten gure antzerkian Arana eta Agirre batzuek! Alderantzikoa litzateke benetan harrigarri! Gainera, ez da gauza berria, Etxahun Irurikoaren piezetan baitaude Santxo Azkarra, Pette Beretter eta Iparragirre... Azkeneko lasaitu behar duzue zuberotar ez zaretenek, trajeriak zuberotarrentzat idazten baititugu: besteak ere gomitatzen zaituztegu gogotik, baina behartu gabe.

L A P I h I T Z A

